

**HITZARMEN BERRIA BETEARAZTEKO GARAIA DA.****Adi zure lan zamekin!**

Azaroan, lan-gatazka gogor baten ondoren, gehiengo sindikalak eta patronalak akordio bikain bat sinatu genuen EAeko gizarte-ekimeneko ikastetxeentzat, eduki oso garrantzitsuekin eta sektoreko langileen lan-baldintzak nabarmen hobetzen zituena. 29 greba egun barne hartu zituen mobilizazioen eta greben dinamika izan zen akordio hori lortzeko gakoak.

Greba amaitzeko akordioaren edukiak Lan Hitzarmenean adostutako baldintzetan integratzeko azken hilabeteetako prozesua ez da erraza izan; izan ere, patronalak borondate eskasa erakutsi du adostutakoa onartzeko, batez ere, birkokatzeari dagokionez. Hala ere, azkenik, greba-amaierako akordioa ondo lotuta egoteak, gehiengo sindikalak Hezkuntza Sailarekin egin dugun kudeaketarekin, egindako mobilizazioekin eta azken hilabeteetan egindako salaketa publikoekin batera, patronalak sinatutako edukiak beren gain hartu eta uztailaren 17an sinatutako Lan Hitzarmenean txertatzera behartu dituzte, baita ikasgelak itxteagatik beren lanpostua gal dezaketen langile guztiak birkokatzea ere. Urtea amaitu baino lehen, hura arautuko duen erregelamendua adostu behar da, bai eta Lanbide Heziketaren erregularizazioa ere (lanaldiaren banaketa irregularra, prestakuntza lantokiertan (FCT) eta arreta zuzena 20 ikasle baino gutxiagoko taldeetan).

Hitzarmena betearazteko garaia da, eta oso eduki garrantzitsuez gain (hala nola soldata finantzaketa publikoari ez lotzea, erretiro partziala % 75era edo soldata-igoera), ikasturte-hasiera honetan kontuan hartu behar dituzun lan-zamei buruzkoak gogorarazi nahi dizkizugu:

- **Ordu osagarri aitortpena.**  
HLE: ordu eta erdi lanaldi osorako edo ordubete lanaldi partzialerako.  
HH I: 125 ordu osagarri maisu-maistrentzat eta TEJlentzat.  
HH II, LH, DBH, BATX. eta LAN. HEZ.: lan pertsonalerako 3 ordu osagarri, **asteko ordutegian finkatuak.**
- **Urteko lanaldi-murrizketak hainbat kolektiborentzat.**  
EAE: 1293 ordu irailaren 1etik ekainaren 30era.  
HHI: maisu-maistrak 1307 ordu, TEJI eta laguntzaileak 1575 ordu.  
HH II, LH, DBH, BATX. eta LAN. HEZ.: 1252 ordu; horietatik 40 ez-presentzialak dira etxean egindako lana aitortzeko. (1212 aurrez aurrekoak, eskolan).  
AZP: 1555 ordu.

Beraz, baldintza horiek zure lan-egutegian eta asteko ordutegian betezen direla egiaztatu, eta hala ez bada, betaraztea eskatu behar duzu. Zure ikastetxean lan zamarekin arazoak badituzu, edo edozein argibidetarako, jar zaitez harremanetan Steilasekin.

**Irakaskuntzan, Steilas**